



Junts pel SI eta CUPen ebazpenaren hitzaurrearen laburpena (www.berria.eus)

Guk, Kataluniako herriaren ordezkari demokratikook, libreki autodeterminazio eskubideaz baliatuz, eta Kataluniako herritarrengandik jasotako aginduari jarraituz,

ERATZEN DUGU Kataluniako Errepublika, Estatu independente, subirau, zuzenbidezko, demokratiko eta sozial gisa.

AGINTZEN DUGU indarrean jartzeko Errepublikaren trantsizio juridikorako eta fundaziorako legea.

HASTEN DUGU prozesu eratzaile eta demokratikoa, oinarri herritarra, transbertsala, parte hartzailea eta loteslea izango duena.

BAIEZTATZEN DUGU estatu espainiarrarekin negoziazioak irekitzeko borondatea, aurrebaldintzarik gabe, bi aldeentzat onuragarri izango den lankidetzaren erregimen bat zehazteko helburuarekin. Negoziatioek, ezinbestean, berdinetik berdinerakoak izan beharko dute.

JAKINARAZTEN DIOGU nazioarteko komunitateari eta Europako Batasuneko agintariei Kataluniako Errepublika eratu dela, eta estatu espainiarrari negoziatioa eskaini diola.

PREMIATZEN DITUGU nazioarteko komunitatea eta Europako Batasuneko agintariak, esku har dezaten abian dauden eskubide zibil eta politikoaren urraketak gerarazteko, eta estatu espainiarrarekin negoziatzeko prozesuaren jarraipena egiteko eta lekuko izateko.

ADIERAZTEN DUGU herritarren eskubide sozial eta demokratikoak indartuko dituen proiektu europarraren aldeko borondatea. Era berean, jarraikortasun soluziorik gabe eta aldebakartasunez, adierazten dugu Europako Batasuneko ordenamendu juridikoaren arauak eta araudi hori transposatzen duten estatu espainiarreko eta autonomia katalaneko ordenamendua aplikatzen jarraitzeko konpromisoa.

BAIEZTATZEN DUGU Kataluniak zalantzarik gabeko borondatea duela nazioarteko komunitatean sartzeko ahal bezain azkar. Estatu berriak konpromisoa hartzen du gaur egun bere lurraldean indarrean dauden nazioarteko betebeharrak errespetatzeko, eta Espainiako Erreinua parte den nazioarteko hitzarmenen parte izaten jarraitzeko.

DEI EGITEN DIEGU estatuei eta nazioarteko erakundeei, errepublika katalana estatu independente eta subirau gisa aitortzera.

PREMIATZEN DUGU Generalitateko Gobernuak, Independentzia Deklarazio hau eta Errepublikaren trantsizio juridikorako eta fundaziorako legean zehaztutakoak indarrean jartzeko beharrezko diren neurri guztiak hartzera.

DEI EGITEN DIEGU Kataluniako Errepublikako herritar guztiei, geure buruari aitortu diogun askatasunaren adinako duintasuna izatera, eta inspiraziokolektiboak ekintza eta jarrera bihurtuko dituen Estatu bat eraikitzen.

GEURE GAIN HARTZEN DUGU Kataluniako herriaren agindua, urriaren 1eko Autodeterminazio Erreferendumean adierazia, Katalunia errepublika formako estatu independente bihurtzeko.